

PARAPEGMA: IZARREN DANTZA

Eguzkia eta Ilargia sinkronizatzeko zikloen jarraipena oso zaila egiten zen egutegia eguneroko bizitzan erabiltzeko orduan. Hori egiteko modu bat izar finko batzuen urteko ibilbidea behatzea zen. Haren erregularitasunak solstizioak iragartzeko kalkuluak sinplifikatzen zituen, batez ere udakoa, hortik hasten baitziren zikloak. Izar-urtekari moduko horri parapegma esaten zioten.

Dirudienez, lehenengoetako bat Metonek berak sortua izan zitekeen, 19 urteko zikloari laguntzeko. Parapegma taulatxoetan idazten zen, zutabetan ordenatuta, egun bakoitza irudikatzeko zuloekin. Horietan, egunero, markagailu bat txertatzen zen. Zulo batzuen ondoan hauen moduko oharrak zeuden: *Eguzkia Akuarion, Beltxarga ilunabarrean hasten da jartzen, edo Andromeda egunsentian hasten da agertzen*, egunak izarren mugimenduekin parekatuz.

Sistema horren erabilera nagusia urtaroak markatzea eta horiei lotutako klima iragartzea izan zen, nekazaritzarako laguntza gisa. Hala ere, badirudi praktikan ez zuela ia eraginik izan egutegi erlijioso edo zibiletan.